

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

231/2023 Foru Agindua, irailaren 19ekoa. Kirol-arloko prestakuntza teknikoko jarduerak egiteko dirulaguntzen deialdia onartzea, 2022-2023 denboraldian

Kultura eta Kirol Sailak kirol arloko formazioa eta ikastaroak diruz laguntzea aurreikusten du, Arabako Lurralde Historikoan edo Trebiñuko enklabean, gutxienez, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera errola duten pertsonen eta 2022-2023 denboraldian egindako formazio edo ikastaroengatik.

Arabako Foru Aldundiak, Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren bidez (2019ko azaroaren 20ko ALHAO, 134. zenkia) eta haren ondorengo aldaketan bidez, oinarri orokor arautzaileak onartu zituen, Kultura eta Kirol Sailaren eskumenen esparruan lehia-arabidean ematen diren dirulaguntzei aplikatzeko.

Kirol Zerbitzuko buruak egindako txostena ikusita.

Horren ondorioz, dagozkidan eskumenez baliatuz, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Kirol arloko formazioa eta ikastaroak garatzeko dirulaguntzen deialdia onartzea, Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabean errola duten pertsonentzat, eta 2022-2023 denboraldian egindako jarduerentzat. Deialdia honekin batera doan eranskinean jaso dira.

Bigarrena. Deialdi hau ondorengoetan adierazitakoaren arabera arautuko da: Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretua (2019ko azaroaren 20ko ALHAO, 134. zenbakia), eta haren ondorengo aldaketak aurreikusitakoa, Kultura eta Kirol Sailaren eskumenen esparruan lehia-arabidean ematen diren dirulaguntzei aplikatu beharreko oinarri arautzaile orokorrak; eta agindu honen eranskinean jasotzen dena.

Hirugarrena. Akordio honen bidez araututako laguntzak 70201. G/341700/48000705 "Kirol-prestakuntzako ikastaroetarako laguntzak" aurrekontu-partidaren kargura ordainduko dira, 30.000,00 euroko gehieneko zenbatekoarekin.

Laugarrena. Organo eskudunak, Kirol Zerbitzuaren proposamena ikusita, dagokion ebazpena emango du, deialdia ALHAOn argitaratu eta gehienez ere hiru hilabeteko epean. Gehieneko epea igaro eta berariazko ebazpenik eman ez bada, interesdunek eskabidea ezetsi egin dela ulertu ahal izango dute.

Bostgarrena. Laguntza emateko edo ukatzeko ebazpena Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 42. eta 43. artikuluetan aurreikusitako moduan jakinaraziko zaie eskatzaileei.

Seigarrena. Deialdi hau ALHAOean argitaratzea.

Zazpigarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Dena dela, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko eman zuen organoaren aurrean, hilabeteko epean, egintza hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edota

zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin dakiok bi hilabeteko epean, egintza hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, uztailearen 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko irailaren 19a

Kultura eta Kirol Saileko diputatua

ANA M. DEL VAL SANCHO

Kirol zuzendaria

JUAN JOSÉ ROJO BAZÁN

Eranskina

Dirulaguntzen deialdia, 2022-2023 denboraldian egindako kirol prestakuntza teknikoko jardueretarako

1. artikulua. Xedea, helburua eta dirulaguntza emateko prozedura

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak ematea, norgehiagoka bidez, Euskadiko Kirol Federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren eranskinean (indarrean dagoen idazketan) jasotako kirol modalitate edo diziplinetatik edozeinetako kirol titulu ofiziala eskuratzea edo kirol lanbideetan jarduteko gaitzea helburu duten kirol prestakuntza teknikoko ikastaroak egiteak sortutako gastuak ordaintzeko.

Deialdi horren helburua da kirol arloan diharduten pertsonen prestakuntza sustatzea eta Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzko ekainaren 30eko 8/2022 Legean eskatzen diren titulazioak lortzen laguntzea.

Hori guztia honako hauetan ezarritakoaren esparruan: Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretua (2019ko azaroaren 20ko ALHAOn, 134. zenbakian, argitaratua eta martxoaren 2ko 7/2021 Foru Dekretuak aldatua), Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua eta deialdi honetan xedatutakoa.

2. artikulua. Aurrekontu egozpena

Dirulaguntzen guztizko zenbatekoa ezin daiteke 30.000,00 euro baino handiagoa izan. Zenbateko hori Arabako Foru Aldundiaren 2023ko ekitaldirako gastu aurrekontuko "Kirol prestakuntzako ikastaroetarako laguntzak" izeneko 70201. G/341700/48000705 partidaren kontura ordainduko da.

3. artikulua. Onuradunak eta baztertutakoak

1. Hauexek izango dira onuradunak:

Gutxienez 2020ko urtarrilaren 1az geroztik Arabako Lurralde Historikoko udalerriren batean edo Trebiñuko enklabean jarraian erroldatuta daudela egiaztatzen duten pertsona fisikoak.

2. Hauek ez dira onuradun izango:

Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzak emateko oinarri arautzaile orokorrak onetsi zituen Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren hirugarren oinarrian eta haren ondorengo aldaketetan jasotzen diren baztertze egoeretan dauden pertsonak.

4. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen gastuak

1. Diruz lagundu ahal izango dira matrikula gastuak, eskatzaileek araubide bereziko kirol irakas-kuntzen arloko, aldi baterako kirol prestakuntzako jardueren arloko edo eskola kiroleko monitore laguntzaile izateko prestakuntzaren bat jasotzen badute. Prestakuntza 2022ko irailaren 1etik 2023ko abuztuaren 31ra bitartean gaindituta egon behar da, baina matrikularen gastuak alde aurrekoak izan daitezke.

- Araubide bereziko prestakuntzak dira urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuaren bidez araututakoak: erdi-mailako hasierako zikloaren ziurtagiria, kirol teknikariaren titulua, goi-mailako kirol teknikariaren titulua.

- Aldi iragankorreko kirol prestakuntzako jarduerak dira otsailaren 5eko HKK/158/2014 Agin-duan aipatutakoak (HKK/158/2014 Agindua, kirol prestakuntzako jardueren alderdi kurrikularrak, baldintza orokorrak eta ondorioak arautzen dituena, urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretu-aren lehen xedapen iragankorrean aipatzen direnak): I. mailako diploma, II. mailako diploma, III. mailako diploma.

- Eskola kiroleko monitore laguntzaileen irakaskuntzak dira Kirolaren Euskal Eskolak otsai-laren 5eko HKK/158/2014 Aginduan xedatutakoari jarraituz ziurtatutakoak.

2. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoan EAEn Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloko Lanbideetan Sartzeari eta Jarduteari buruzko ekainaren 30eko 8/2022 Legearen lehen xedapen iragankorraren seigarren apartatuan ezarritakoaren arabera, diruz lagundu ahal izango dira II. mailako edo III. mailako edo maila baliokideko federazioko ikastaro ez-ofizialen matrikulazio gastuak, lanbidean jarduteko gaituta geratzeko aukera ematen baitzaie prestakuntza horiek legea indarrean jarri ondorengo bi urteetan jasotzen dituztenei.

5. artikulua. Eskaerak aurkeztea

1. Pertsona bakoitzak eskaera bakarra baino ez du aurkeztuko, kontuan hartu gabe diruz laguntzeko moduko zenbat prestakuntza egin dituen. Prestakuntza adingabe batek egin badu, aitak, amak edo haren tutoreak egin beharko du eskaera. Ondorio guztietarako, haiek izango dira, eta ez adingabea, laguntzaren onuradunak.

2. Eskaerak Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuari zuzenduko zaizkio eta toki hauetan aurkeztu ahal izango dira:

a) Telematikoki, Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoa eskuragarri dagoen izapide espezifikoaren bidez: <https://egoitza.araba.eus/eu/-/subvenciones-realizacion-actividades-de-formacion-tecnica-deportiva>. Horretarako, aurrez, eskatzaileek Arabako Foru Aldundiak onartutako ziurtagiri elektronikoren bat eduki beharko dute. Informazio gehiago: <https://egoitza.araba.eus/eu/egoitza-elektronikoa/ezagutu-egoitza/nola-sartu>.

b) Aurrez aurre: Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean (Probintzia plaza 5, behe), edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 39/2015 Legean jasotako beste modu batean. Azken kasu horretan, eskaerak deialdi honen I. eranskineko ereduari egokitu beharko zaizkio.

6. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak

1. Eskaera formalizatzeko, dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- 5. artikuluko 2 a) apartatuan ezarritako modalitatean aurkeztutako eskaeretan:

- Inprimaki elektronikoa, behar bezala beteta.

- 5. artikuluko 2 b) apartatuan ezarritako modalitatean aurkeztutako eskaeretan:

- Eskaera, behar bezala beteta. I. eranskina.

•5. artikuluko 2 a) eta 2 b) apartatuetan ezarritako modalitateetan aurkeztutako eskaeretan, aurrekoez gain:

– Ikastaroa antolatzen eta titulua ematen duen erakundearen ziurtagiria (II. eranskina), honako hauek jasotzen dituena:

– Dirulaguntza eskaeraren xede den ikastaroaren titulua eskuratzeko betekizunak bete dituela.

– Matrikularen kostua.

– Ikastaroaren hasiera eta amaiera egunak (praktikaldia, hala badagokio, barne).

– Matrikulan eta, hala badagokio, sarrera proban egindako gastuaren fakturak eta egiaztagiria. Ordainagiri gisa, agiri hauetako edozein onartuko da:

– Bankuko ziurtagiria; bertan agertuko dira, gutxienez, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren onuraduna.

– Jatorrizko fakturaren jaulkitzaileak sinatutako eta/edo zigilatutako ziurtagiria; bertan agertu behar dira faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data.

– Posta arruntez jasotako banku laburpenak.

– Kontu korronteen libreten kopia, mugimenduak ageri dituena.

– Posta elektronikoz jasotako banku laburpenak edo transferentzia agindu telematikoak.

– Fakturak, enpresa jaulkitzailearen zigiluarekin, ordainduta daudela adierazita.

2. Eskaerak adierazitako betekizunak betetzen ez badituzte, Kultura eta Kirol Sailak interesdunei hamar egun baliodun emango dizkie akatsak zuzendu edo nahitaezkoak diren agiriak aurkezteko. Hala egiten ez badute, eskaeran atzera egin dutela joko da, horretarako ebazpena eman ondoren.

3. Kirol Zerbitzuak ofizios egiaztatuko du eskatzaileak gutxienez 2020ko urtarrilaren 1az gozitik Arabako Lurralde Historikoko udalerriren batean edo Trebiñuko enklabean jarraian errol-datuta daudela eta Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela. Halaber, prestakuntza jaso duena adingabea denean, haren nortasun datuak egiaztatuko ditu, interesdunak horren aurka egin ezean. Kasu horretan, esandakoa egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu, 39/2015 Legearen 28.2 artikuluko xedatzen duen bezala (Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak aldatu zuen, azken xedapenetako hamabigarrena dela bide). Arabako Lurralde Historikotik kanpoko eskatzaileek kasuan kasuko Ogasunaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute. Eta Gizarte Segurantzaren ziurtagiriaren kasuan, eskatutako laguntza 3.000 eurotik gorakoa denean soilik izango da beharrezkoa.

7. artikulua. Aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea 15 egun balioduneko izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik aurrera hasita.

8. artikulua. Prozeduraren instrukzioa eta balioespen irizpideak

Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko Kirol Zerbitzua izango da prozeduraren instrukziorako organo eskuduna.

Dirulaguntza kalkulatzeko, honako urrats hauek aplikatuko dira hurrenez hurren, harik eta eskaera guztiak mugaren batera iritsi arte, edo deialdiaren gehieneko zenbatekora iritsi arte:

1. Dirulaguntza, gehienez ere, diruz lagundu daitekeen prestakuntza egiteko ordaindu den matrikularen zenbatekoaren adinakoa izango da. Dirulaguntza ez da inolaz ere hortik gorakoa izango.

2. Eskatzaile bakoitzak ordaindutako matrikulen batura handiagoa bada deialdiaren guztizko zenbatekoa baino (2. artikuluan jaso da), proportzionalki murriztuko da, batura guztizko zenbateko horretara doitzeko.

3. Baldin artikulua honetako 2. apartatuan adierazitakoa gertatzen bada, emakumeek egindako prestakuntzei esleitutako zenbatekoa 1,15eko faktore zuzentzailearekin biderkatuko da. Horren emaitza izango da emakumeek egindako prestakuntzei dagokien dirulaguntza, eta gehieneko muga artikulua honen 1. apartatuan ezarritakoa izango da.

4. Artikulu honetako 3. apartatuan adierazitako faktore zuzentzailea ezartzearen ondorioz, esleitutako zenbatekoen batura handiagoa izango da 2. artikuluan adierazitako guztizko dirulaguntzaren zenbatekoa baino. Hori dela-eta, eskaera bakoitzari esleitutako zenbatekoen baturaren eta deialdiko guztizko zenbatekoaren arteko aldea kalkulatu da, eta alde hori proportzionalki kenduko da gizonezkoek egindako eskaeren artean. Horren emaitza izango da gizonezko eskatzaileei emango zaien dirulaguntza.

9. artikulua. Ebazpena

1. Eskaerak balioespen batzordeak aztertuko ditu. Balioespen batzordearen buru Kirol zuzendaria izango da, eta honako hauek izango dira batzordekideak: Kirol Zerbitzuaren burua eta zerbitzu horri atxikitako bi teknikari. Kultura eta Kiroleko Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren burua izango da idazkari, hitzarekin baina botorik gabe, edo hark eskuordetzen duen pertsona.

2. Aurkeztutako eskaerak deialdian ezarritako irizpideen arabera aztertu ondoren, balioespen batzordeak txostena egingo du, eta ebaluazioaren emaitza zehaztuko du han.

3. Organo eskudunak eman beharreko ebazpena emango du, Balioespen batzordeak proposatuta, gehienez ere hiru hilabeteko epean, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Gehieneko epea igaro eta esanbidezko ebazpenik eman ez bada, pertsona interesdunek eskaera ezetsi egin dela ulertu ahal izango dute.

4. Esleipen ebazpenean zehaztu behar da zer eskatzailei eman zaion dirulaguntza, eta berriaz adierazi behar da gainerako eskaerak ezetsi egin direla. Ebazpenean adierazi behar da dirulaguntzaren zenbatekoa den, nola ordainduko den, zer agiri aurkeztu behar den eta zein baldintzarekin ematen den dirulaguntza.

5. Dirulaguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie eskatzaileei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 43. artikuluan xedatzen dituen moduetan.

6. Ebazpenak administrazio bidea agortzen du. Haren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, Administrazioarekiko Auzietarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 8. artikuluan xedatutakoaren arabera; horretarako, bi hilabeteko epea izango da, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Zuzenean aurkaratu ezean, berraztertzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio, nahi izanez gero, ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatutakoarekin.

10. artikulua. Dirulaguntza ordaintzea

Deialdiaren ebazpena onetsi ondoren ordainduko dira onartutako dirulaguntzak.

11. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

1. Deialdi honetan emandako dirulaguntzak bateragarriak dira estatuko edo nazioarteko beste erakunde publiko edo pribatu batzuek jarduera edo programa berarentzat emandako beste dirulaguntza batzuekin, baldin eta dirulaguntzaren zenbatekoak, bakarrik edo beste dirulaguntza batzuekin batera, diruz lagundutako programaren edo programen kostua gaintzen ez badu.

2. Onuradunak behartuta daude dirulaguntza ematen duen organoari jakinaraztera helburu bererako beste dirulaguntzarik edo laguntzarik eskatu dioten estatuko nahiz nazioarteko beste edozein administrazio edo erakunde publikori edo edozein entitate edo erakunde pribaturi. Halaber, adierazi behar diote dirulaguntzarik jaso duten haiengandik. Informazio hori eskaeran bertan eman beharko da, edo jakin bezain laster, eta, nolana ere, dirulaguntza ordaindu aurretik.

12. artikulua. Publizitatea


1. Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da.
2. Halaber, Arabako Foru Aldundiaren web orrian jarriko da: www.araba.eus.

13. artikulua. Erantzukizunak

Onuradunek beren gain hartuko dituzte deialdi honen xede diren jarduerak egitearen ondorioz sor daitezkeen erantzukizunak.

14. artikulua. Interpretazioa

Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta Kirol Sailak ebatziko du deialdi honen interpretazioaren inguruan sortzen den edozein zalantza.

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>I. eranskina Kirol prestakuntza teknikoa Eskaera</p>	<p>2023</p>
	<p>Anexo I Formación técnica deportiva Solicitud</p>	

Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Cultura y Deporte

ESKATZAILEA ■ SOLICITANTE

(Adingabeen kasuan, haien legezko tutorea izan behar da ■ En el caso de menores, ha de ser su tutor/a legal)

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo <input type="checkbox"/> NAN DNI <input type="checkbox"/> AIZ NIE <input type="checkbox"/> Besteren bat Otro			Identifikazio zk. ■ N° identificativo <input type="text"/>		Sexua ■ Sexo <input type="checkbox"/> Emakumea Mujer <input type="checkbox"/> Gizona Hombre		
Izena ■ Nombre <input type="text"/>			Lehen abizena ■ Primer apellido <input type="text"/>		Bigarren abizena ■ Segundo apellido <input type="text"/>		
Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle) <input type="text"/>			Zk. ■ Núm. <input type="text"/>	Letra <input type="text"/>	Eskra. ■ Escal. <input type="text"/>	Solairua ■ Piso <input type="text"/>	Aldea ■ Mano <input type="text"/>
Herrialdea ■ País <input type="text"/>	Probintzia ■ Provincia <input type="text"/>	Udalerría ■ Municipio <input type="text"/>	Herría ■ Localidad <input type="text"/>		PK ■ C. P. <input type="text"/>		
Posta elektronikoa ■ Correo electrónico <input type="text"/>							
Telefonoa ■ Teléfono <input type="text"/>			Mugikorra ■ Móvil <input type="text"/>				

JAKINARAZPENETARAKO HELBIDEA ■ DOMICILIO A EFECTOS DE NOTIFICACIÓN POSTAL

(Ez da bete behar eskatzailearen datuekin bat egiten badute ■ No rellenar si coincide con los datos de la persona solicitante)

Helbidea (kalea) ■ Domicilio (calle) <input type="text"/>			Zk. ■ Núm. <input type="text"/>	Letra <input type="text"/>	Eskra. ■ Escal. <input type="text"/>	Solairua ■ Piso <input type="text"/>	Aldea ■ Mano <input type="text"/>
Herrialdea ■ País <input type="text"/>	Probintzia ■ Provincia <input type="text"/>	Udalerría ■ Municipio <input type="text"/>	Herría ■ Localidad <input type="text"/>		PK ■ C. P. <input type="text"/>		

ORDEZKATUA ■ REPRESENTADO/A

(Bakarrik bete prestakuntza egin duena adingabea bada ■ Sólo rellenar en caso de formaciones realizadas por menores)


Identifikazio agiria ■ Documento identificativo <input type="checkbox"/> NAN DNI <input type="checkbox"/> AIZ NIE <input type="checkbox"/> Besteren bat Otro			Identifikazio zk. ■ N° identificativo <input type="text"/>		Sexua ■ Sexo <input type="checkbox"/> Emakumea Mujer <input type="checkbox"/> Gizona Hombre	
Izena ■ Nombre <input type="text"/>			Lehen abizena ■ Primer apellido <input type="text"/>		Bigarren abizena ■ Segundo apellido <input type="text"/>	
Posta elektronikoa ■ Correo electrónico <input type="text"/>						
Telefonoa ■ Teléfono <input type="text"/>			Mugikorra ■ Móvil <input type="text"/>			

LEGEZKO ORDEZKARIA ■ REPRESENTANTE LEGAL

(Bakarrik bete ahalordea hirugarren pertsona bati eman bazaio ■ Sólo rellenar en caso de haber otorgado el poder a una tercera persona)

Identifikazio agiria ■ Documento identificativo <input type="checkbox"/> NAN DNI <input type="checkbox"/> AIZ NIE <input type="checkbox"/> Besteren bat Otro			Identifikazio zk. ■ N° identificativo <input type="text"/>		Sexua ■ Sexo <input type="checkbox"/> Emakumea Mujer <input type="checkbox"/> Gizona Hombre	
Izena ■ Nombre <input type="text"/>			Lehen abizena ■ Primer apellido <input type="text"/>		Bigarren abizena ■ Segundo apellido <input type="text"/>	
Posta elektronikoa ■ Correo electrónico <input type="text"/>						
Telefonoa ■ Teléfono <input type="text"/>			Mugikorra ■ Móvil <input type="text"/>			

Orria ■ Hoja 1/6

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>I. eranskina Kirol prestakuntza teknikoa Eskaera</p>	<p>2023</p>
	<p>Anexo I Formación técnica deportiva Solicitud</p>	

Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Cultura y Deporte

BANKUKO DATUAK ■ DATOS BANCARIOS

(Bakarrrik bete Arabako Foru Aldundian hirugarrenen alta emanda egon ezean edo banku helbideratzearen datuak aldatu badira ■ Cumplimentar, únicamente, en el caso de no estar dado de Alta de Terceros en la Diputación Foral de Álava o de modificación de los datos de la domiciliación bancaria)

BANKUA BANCO	
IBAN	SWIFT

FINANTZA ERAKUNDEAK bete beharrekoa A rellenar por la ENTIDAD FINANCIERA	ESKATZAILEAK bete beharrekoa A rellenar por la persona SOLICITANTE
<p><i>Finantza erakundearen adostasuna (sinadura eta zigilua)</i> <i>Conforme entidad financiera (firma y sello)</i></p>	<p>ADIERAZI BI AUKERETAKO BAT: INDICAR UNA DE LAS DOS OPCIONES:</p> <p><input type="checkbox"/> Alta ematea eskatzen da Arabako Foru Aldundian hirugarren moduan. Se solicita el alta como Tercero de la Diputación Foral de Álava.</p> <p><input type="checkbox"/> Bankuko datuak eguneratzea eskatzen da, Arabako Foru Aldundian dagoeneko altan egonik hirugarren moduan. Se solicita la puesta al día de los datos bancarios como Tercero de la Diputación Foral de Álava ya dado de alta.</p>
<p>Banku kontuaren titulartasunak bat etorri behar du eskatzailearekin. La titularidad de la cuenta bancaria debe coincidir con la persona solicitante</p>	

ESKATUTAKO LAGUNTZAREN XEDE DEN PRESTAKUNTZA ■ FORMACIÓN PARA LA QUE SE SOLICITA AYUDA


TITULUA TÍTULO	
ERAKUNDE PRESTATZAILEA ENTIDAD FORMADORA	
IKASTAROAREN HASIERA DATA FECHA DE COMIENZO DEL CURSO	IKASTAROAREN AMAIERA DATA (PRAKTIKALDIA BARNE, HALA BADAGOKIO) FECHA DE FIN DEL CURSO (PRÁCTICAS, EN SU CASO, INCLUIDAS)

BESTE ERAKUNDE BATZUEK EMANDAKO LAGUNTZAK ■ AYUDAS CONCEDIDAS POR OTRAS ENTIDADES

(Bakarrrik bete beste erakunde batzuetatik laguntzak/bekak jaso badira ■ Cumplimentar, únicamente, si se han recibido ayudas/becas de otras entidades)

ERAKUNDEA ENTIDAD	KONTZEPTUA CONCEPTO	EMANDAKO ZENBATEKOA IMPORTE CONCEDIDO

Orria ■ Hoja 2/6

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>I. eranskina Kirol prestakuntza teknikoa Eskaera</p>	<p>2023</p>
	<p>Anexo I Formación técnica deportiva Solicitud</p>	

Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Cultura y Deporte

PERTSONA INTERESDUNAREN ERANTZUKIZUN ADIERAZPENA
DECLARACION RESPONSABLE DE LA PERSONA INTERESADA

ADIERAZTEN DU

Aurkeztutako datuak egiazkoak dira eta horiek baieztatzeko behar diren egiaztagirri guztiak emango ditu; gainera, eskaera aztertzeko eskatzen zaion informazio osagarri guztia aurkezteko konpromisoa hartzen du.

Gutxienez, 2020ko urtarrilaren 1az geroztik Arabako Lurralde Historikoan etengabe erroldatuta egon dela eta eskaera egin duen egunean bertan jarraitzen duela.

Ez dago Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren hirugarren artikuluan ezarritako baztertze egoeretako batean ere.

Egunean dago Arabako Foru Ogasunarekiko betebeharretan eta, hala badagokio, Gizarte Segurantzarekikoetan.

Ez da jasotzen ari xede eta helburu bererako laguntza edo dirulaguntzarik administrazio publikoetatik edo erakunde pribatuetatik, eskaeran dagokion atalean adierazi ez denik.

Ez du zehapen administratibo edo penalik dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzea eragozten dion epai irmo baten bidez, ez eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ere, berariaz aipatuta generoagatik edo sexu orientazioagatik diskriminazioa egiteagatik gertatutakoak (dagokion zehapenean ezarritako aldian).

Ez du konkurtso deklarazioa eskatu, ez da kaudimengabetzat jo edozein prozeduratan, ez dago konkurtsoan deklaraturik, ez dago esku hartze judizialaren mende edo ez dute desgaitu Konkurtso Legearen arabera, konkurtsoa kalifikatzeko epaian ezarritako desgaikuntza aldia amaitu gabe.

Ez du eragin, errudun deklaraturik izateko kausagatik, Administrazioarekin egindako edozein kontraturen suntsiarazpen irmorik.

DECLARA QUE

Los datos presentados son ciertos y se compromete a facilitar las comprobaciones necesarias para verificar los mismos y a aportar toda la información complementaria que se le solicite con el fin de analizar su solicitud.

Está empadronado/a ininterrumpidamente en el Territorio Histórico de Álava, al menos, desde el 1 de enero de 2020, y que el día de presentación de esta solicitud continúa en esa situación.

No se encuentra en ninguna de las situaciones de exclusión establecidas en el tercer artículo del Decreto Foral 50/2019, del Consejo de Gobierno de 12 de noviembre.

Tiene regularizada su situación con la Hacienda Foral de Álava y, en su caso, con la Seguridad Social.


No está recibiendo ninguna ayuda o subvención con este mismo objeto y finalidad concedida por administraciones públicas o entidades privadas que no se haya señalado en el apartado correspondiente de la solicitud.

No está sancionada penal o administrativamente mediante sentencia firme que le imposibilite obtener subvenciones o ayudas públicas, ni estar incurso en prohibición legal alguna que le inhabilite para ello, con mención expresa a las que se hayan producido por incurrir en discriminación por razón de género u orientación sexual (durante el periodo impuesto en la correspondiente sanción).

No ha solicitado la declaración de concurso, no ha sido declarada insolvente en cualquier procedimiento, no se halla declarada en concurso, no está sujeta a intervención judicial o no ha sido inhabilitada conforme a la Ley Concursal, sin que haya concluido el período de inhabilitación fijado en la sentencia de calificación del concurso.

No ha dado lugar, por causa de la que hubiese sido declarada culpable, a la resolución firme de cualquier contrato celebrado con la Administración.

Orria ■ Hoja 3/6

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>I. eranskina Kirol prestakuntza tekniko Eskaera</p>	<p>2023</p>
	<p>Anexo I Formación técnica deportiva Solicitud</p>	

Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Cultura y Deporte

Pertsona fisikoa, merkataritzaren sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkariak dutenak ez daude bateraezintasun kasuren batean, gai horiek arautzen dituen araudian ezarritakoaren arabera.

Egunean dituzten dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak.

ADMINISTRAZIOAK AGIRIAK KONTSULTATZEA: INFORMAZIOA

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak 28. artikuluan ezartzen du herritarrek ez dutela zertan aurkeztu administrazio publiko jarduleak daukan agiririk, ez eta beste edozein administrazio egindako agiririk ere. Arabako Foru Aldundiak agiri horiek kontsultatu edo eskuratu ahal izango ditu, interesdunak aurka egin ezean.

Arabako Foru Aldundiak agiri hauek eskuratu ditu:

- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatearen inguruko datuak (3.000 €-tik gorako laguntza eskaerarako).
- Zerga betebeharrak egunean izatearen inguruko datuak.
- Prestakuntza egin duen pertsonaren eroldaren datu historikoak.
- Prestakuntza egin duen pertsonaren nortasun datuak, adingabea bada.

Arabako Foru Aldundiak agiri horiek eskuratu ditzake zure partez. Horren AURKA ZAUDE?

- Bai
- Ez

"BAI" markatzen baduzu, zeuk aurkeztu beharko dituzu izapidetze fasean.

No está incurso la persona física, los administradores de las sociedades mercantiles o aquellos que ostenten la representación legal de otras personas jurídicas, en alguno de los supuestos de incompatibilidades en los términos establecidos en la normativa que regule estas materias.

Se halla al corriente del pago de obligaciones por reintegro de subvenciones.

INFORMACIÓN SOBRE CONSULTA DE DOCUMENTOS POR LA ADMINISTRACIÓN

La Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las AAPP en su artículo 28 establece que los interesados tienen derecho a no aportar documentos que ya se encuentren en poder de la Administración actuante o hayan sido elaborados por cualquier otra Administración. La Diputación Foral de Álava podrá consultar o recabar dichos documentos salvo que el interesado se opusiera a ello.

Documentación a recabar por la Diputación Foral de Álava:

- Estar al corriente de las obligaciones con la Seguridad Social (para solicitudes de ayuda superiores a los 3.000€).
- Estar al corriente de las obligaciones tributarias.
- Datos del historial de padrón de la persona que haya realizado la formación.
- Datos de identidad de la persona que haya realizado la formación en caso de ser menor de edad.

Desde la Diputación Foral de Álava podemos obtener la anterior documentación por ti. ¿TE OPONES a que lo hagamos?

- Sí
- No

Si marca "Sí", deberá aportar dichos documentos al tramitar.



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava
www.araba.eus

I. eranskina
Kirol prestakuntza teknikoa
Eskaera

Anexo I
Formación técnica deportiva
Solicitud

2023

Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Cultura y Deporte


(Lekua eta data ■ Lugar y fecha)

Sinadura ■ Firma

Erantzukizunpeko adierazpen edo komunikazio bati gehitzen zaion edozein datu edo informazio funtsean zehatza ez bada, faltsua bada edo falta bada, edo administrazio eskudunaren aurrean erantzukizunpeko adierazpena aurkezten ez bada, adierazitakoa betetzen dela egiaztatzeko eskatzen den dokumentazioa aurkezten ez bada, edo jakinarazpena egiten bada, ukitutako eskubidea edo jarduera gauzatzeko jarraitu ezin izango da gertaera horien berri jakiten den unetik. Sor litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 69.4 artikulua).

La inexactitud, falsedad u omisión, de carácter esencial, de cualquier dato o información que se incorpore a una declaración responsable o a una comunicación, o la no presentación ante la Administración competente de la declaración responsable, la documentación que sea en su caso requerida para acreditar el cumplimiento de lo declarado, o la comunicación, determinará la imposibilidad de continuar con el ejercicio del derecho o actividad afectada desde el momento en que se tenga constancia de tales hechos, sin perjuicio de las responsabilidades penales, civiles o administrativas a que hubiera lugar (Artículo 69.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas).

Orria ■ Hoja 5/6

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>I. eranskina Kirol prestakuntza teknikoa Eskaera</p>	<p>2023</p>
	<p>Anexo I Formación técnica deportiva Solicitud</p>	

Kultura eta Kirol Saila

Departamento de Cultura y Deporte

DATUEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO ARGIBIDEAK

INFORMACIÓN BÁSICA SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (DBEO) ezarritakoa betetzeko, jakinarazten dizugu ematen dizkiguzun datuak Arabako Foru Aldundiak tratatu eta fitxategi hauetan sartuko dituela:

- T38 KIROLARIAK; helburu honekin: kirola kudeatzea, kirol jarduerekin eta erakundeekin zerikusia duten beka eta dirulaguntzak ematea, kirol prestakuntzako ikastaroak egitea, jarduerak ikuskatzea, iradokizunak eta zalantzak kudeatzea.

- T39 HIRUGARRENAK ETA INTERESDUNAK; helburu honekin: aurrekontua gauzatzeko eragiketak eta aurrekontutik kanpokoak izapidetzea, hala gastuak nola sarrerak.

Bermatzen dugu datuak isilpean gordeko direla eta ez zaizkiela jakinaraziko beste batzuei, lege ezarritako kasuez kanpo.

Aukeran izango duzu datuetan sartu, haiak zuzendu, ezereztu, haien aurka egin eta tratamendua mugatzeko eskubideak erabiltzea, zeinak DBEOk aitortzen baititu, eta, horretarako, egoitza elektronikoaz baliatu ahalko zara www.araba.eus atarian edo Arabako Foru Aldundiaren Erregistroaren bulegora jo ahalko duzu (Probintzia plaza, 5, 01001 PK, Gasteiz -Araba).

Argibide gehiago:

<https://web.araba.eus/eu/tratamenduen-lege-ohar-hedatua>

Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (RGPD), le informamos que los datos que Vd. nos facilita van a ser tratados por la Diputación Foral de Álava y se van a incorporar en los tratamientos de:

- T38 DEPORTISTAS para la finalidad de gestión del deporte, concesión de becas y subvenciones relacionadas con actividades y entidades deportivas. Realización de cursos de formación deportiva. Inspección de actividades. Gestión de sugerencia, dudas.


- T39 TERCEROS E INTERESADOS para la finalidad de la tramitación de operaciones de ejecución presupuestaria o extrapresupuestaria, tanto de gastos como ingresos.

Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente.

Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición y limitación que reconoce el RGPD a través de la Sede Electrónica en www.araba.eus, o dirigiéndose a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5, CP 01001 Vitoria-Gasteiz (Álava).

Para más información:

<https://web.araba.eus/es/aviso-legal-ampliado>

 <p>Arabako Foru Aldundia Diputación Foral de Álava www.araba.eus</p>	<p>II. eranskina Kirol prestakuntza tekniko Erakunde prestatzailearen ziurtagiria</p>	<p>2023</p>
	<p>Anexo II Formación técnica deportiva Certificado de la entidad formadora</p>	
<p>Kultura eta Kirol Saila</p>	<p>Departamento de Cultura y Deporte</p>	

ZIURTAGIRIA ■ CERTIFICADO

Ziurtagiria egiten duen erakundearen datuak ■ Datos de la entidad que certifica

<p>Ikastaroa antolatu eta titulua eman duen erakundearen izena Nombre de la entidad que organiza el curso y expide el título</p>	
<p>Erakundearen ordezkariaren izen-abizenak Nombre y apellidos de el/la representante de la entidad</p>	

Goian aipatzen den pertsonak hau ziurtatzen du:

La persona arriba mencionada certifica que:

D. / Dña. **Jaunak / Andreak**

NAN ■ DNI

Ondoren zehazten den titulazioa eskuratzeko betekizunak bete dituela:

Ha superado los requisitos para la obtención de la titulación que se especifica a continuación:

<p>Titulua Título</p>			
<p>Prestakuntzaren hasiera data Fecha de inicio de la formación</p>	<p>...../...../.....</p>	<p>Prestakuntzaren bukaera data (praktikaldia barne, hala badagokio) Fecha de finalización de la formación (prácticas, en su caso, incluido)</p>	<p>...../...../.....</p>
<p>Matrikularen kostua Coste de la matrícula</p>	<p>€</p>		

Eta behar den tokian hala ager dadin, ziurtagiri hau egin eta sinatzen dut.

Y para que así conste donde convenga, expido y firmo la presente certificación.

.....
(Lekua eta data ■ Lugar y fecha)

Sinadura eta zigilua ■ Firma y sello

Orria ■ Hoja 1/1